

2009 eko Ekeinaren lehena, Arantzetako beila.

Etorri gira beilari, Atxulai kasko huntarat. Eta entzun dugu Jainkoaren hitza, Paulok Galatiarreri idatzia eta beraz guri ere. Entzun ditugu Jondoni Joaniren ebangeliotik Jesus Jaunaren azken hitzak, guretzat direnak, hoinbeste eta hoinbeste girixtinoen ondotik, hoinbeste eta hoinbeste Kristauekin batean. Hiru hitz nahi ditut xurgatu, otoiztu: Abba, Aita; ama, zure Ama; seme eta ondoko.

Abba Aita : aurtan ikertu ditugu, menturaz beste urtetan baino hobeki, Jondoni Pauloren epixtolak. Mendi kasko huntan, entzun eta atxik ditzagun hitz hauk « **Jainkoak igorri du gure bihotzerat bere Semearen Izpiritua, oihuz diona : Abba, Aita** ».

Jainkoa aipatzean, zonbaitek erraiten dute « *ba, bada ba zerbait, gu baino goragoa dena* ». Ainitz erligionetan, Jainkoa agertzen da gizonaren etsai, gizonaren biziaz jelos bezala, iduri eta gizonak ez duela Jainkoaren beharrik.

Kristauek onhartzten dugu berri on hau: Izpiritu Saindua, bataioan ukaiten dugu, konfirmazionean berriz indar berritzen, Eukarizti bakoitzean gutaritzen; Izpiritu Sainduarekin Jainkoa izendatzen dugu, hebrearrez « *abba* », « *aita* » edo « *aitatto* » haurrek erraiten duten bezala.

Egun batez norbaitek hau kondatu zautan: « *haur batek zazpi urte dituelarik, erraiten du: « ene aitak gauza guziak badazki » ; hamazazpi urtetan, « ene aitak deus ez daki », hogoita zazpi urtetan, « aitari zerbait galdatzen banu »; hogoita hamazazpi urtetan, « ene aitak kasik denak badazki » eta berrogoita zazpi urtetan: « ene aitak ainitz gauza bazazkien ».*

Erraiteko manera horiek ez direa gureak ? ez girea, usu gazte balentrier agertzen « *denak nik badazkit* » ?

Guretzat, Jainkoa « *abba, aita* » agertzen da ». Jondoni Paulok izkiriatu du « **etorri zelarik denborareren betea** »...Hunat goiti iragaitean, arizan gira otoitzean, orroitzuz hemen bizi izan dela ermita bat, beheretik urrun, beheerari so, beheerkoentzat otoitzean.

Kantikak dio « *goazen airoski denak Axulai alderat, hara mendi gainean amaren kapera* ».

Girixtino haurrideak ez izi gainerat doan bidean, ez geldi indar berritzeko baizik. Kristau fedean, aitortzen dugu, guhaurek ez pentsatuzko berri hau « **diogu: abba, aita** ». Onhar dezagun Jainkoaren eskaintza: gure ahoak oihukatzen ahal du otoitzean, « *abba, aita* »; gure biziak erakusten ahal du, Seme, alaba bizi bat, erakutsiz, zer eta nor « **abba, aita** ».

Ama, zure Ama : entzun dugu ebangelioa, jondoni Joaniren liburutik; Jesus kurutzefikatua hiltzen ari da eta « **gero erran zion dizipulari : horra zure ama** ».

Ama: denak badugu amaren beharra, haurrik ez da ama gabekorik, helduden igandean ohoratuko ditugu lur huntako amak, zerbait eskainiz bizi direner eta orhoituz otoitzean edo berdin hil herrietako itzuli bat eginez, lur huntarik joanak diren ama guziez.

Hiltzean Jesusek utzi ditu bere ama « **horra zure ama** » eta bere izpiritua « **zure eskuetan emaiten dut ene Izpiritua** ».

Ama, Jesusen ama, joan den urtean maiz izan gira Lurden, ohoratu baitugu Bernadeta Soubirous-en bizia, zeruko amarekin ukan dituen haremanak.

Mendekoste astelehen guziz hunat ekartzen duzue Amaren itxura...Gure Amak erakusten dauku Krixtoaren bidea, beti goiti, beti urrunago behatuz, beti ta beti gehiago beilari izanez eta agertuz, lur huntako bideetan.

Ixtorio batek kondatzen du, duela aspaldi hemengo orduko jendeak nahi zutela Mariari kapera bat egin behean, bainan, gauaz etxe harriak beti goiti eremanak zirela.

Ama batek haur bakoitza maite du, ama batek haur guziak nahi ditu elgarretaratuak ikusi...Oraiko mende huntan, ez direa girixtino bidean, hoinbeste katoliko agertzen amarik ez balute bezala. Ez da Amaren falta, bainan onhartzailen eskasa.

Mezan parte hartuz izan gaiten amarekin otoitzean, amaren bidearen segitzaile: mezulari, otoizlari, zerbitzari, hiruhitza horriek dira gure parropien izenak, ez gira ez izanak, bainan ere mezulari, otoizlari, zerbitzari izanen...Mariarekin.

Horra zure ama. Ama, gure ama.

Aita, ama, eta azkenik hirugarren hitza « seme, ondoko »

« *Hola beraz ez zira gehiago mutil, bainan seme; eta seme bazira, ondoko ere bai, Jainkoari esker* ».

Hunat etortzean, izertu gira, izerdiak ez du beti usain ona agertzen. Aldiz bataio egunean, konfirmazione pestan, apezak ordinazione egunean, olio sailduaz gantzutuak izan gira, ukan dugu usain ona. Usain onak bertzeen sudur xiloak loriatzen ditu; usain ona senditu ondoan, galdatzen dugu « *nun erosi duzue, nik ere gauza bera eskura dezadan* ».

Nun erosi ? ez dugu fedea erosi, olio saildua ez dugu erosi bainan ukan, seme eta alaba girelakotz, Jainkoaren hautuz, ez gehiago izaiteko mutil bainan ondoko.

Zer berri ona, gure libertatea endurtzen ez duena bainan azkartzen, eman dezagun beraz Izpiritu sailduari gazte aire bat, indar berri bat, bero aldi bat...

« *Ondoko* » girelarik, ainitz gauza egin nahi ditugu. Zinez ondoko gira: ez beldur izan, badugu zer egin.

Europa aipatua da egun hautan, Europa ez da ideia bat bainan gizon eta emazte ainitzen bizia eta geroa, ttipiak eta pobreak lehen ezarriz, beso, beharri, begi, izpirituak hobeki idekiz...

Zinez ondoko agertuko gira. Behar diren guziak gure eskuetan gira bainan ez dakigu beti nola zer egin. Mezan parte hartuz, ukaiten ditugu, Jainkoaren hitza eta Jainkoaren Izpiritua. Urririk, betikotz. Ez geiago mutil bainan ondoko izaiteko eta agertzeko...

Abba, aita; ama, Jainkoaren eta gure ama: seme, alaba ondoko: hemendik jautsi eta badugu seme eta alaba bidea, ez gira sekulan sobera fite ibiliko, ez gira bakar bakarrik seme,alaba, anaia, arreba, ondoko izanen, bainan elgarrekin; seme, alaba, anaia, arreba, ondoko egun, bainan ere bihar, etzi, eta menderen mendetan. Amen.

Dominique CORNU.